

Astekaria

BARRREN

elgoi



**LEHEN JAUNARTZEAN
HABITOA ALA ...**

ostarku

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46

**Argazki errebelatua
ordu 1ean
Erreportaiak
Ezkontzak
Estudio argazkiak
Jaunartzeak
Karnetak
Argazki materiala**

- 3 LAU HANKATAN**
"Denboraren joanak gauzak konponduko dituela sinetsi nahi dut..." **Diana Perez de Albeniz**
- 6 ERREPORTAIA: GAS NATURALA HELDU DA ELGOIBARRERA**
Auzokide batek, NaturGasek proposatutako enpresari eman diezaioke bere etxeko instalazioaren lana edo, hala nahiago balu, gutxienez, IG2 txartela duen herriko iturginarengana jo dezake.
- 10 ARRAZOIAK ERDIBANA: NOLA JANTZI NESKAK JAUNARTZEAN?**
Conchi Eguren: "Bakoitzak bere seme-alaben jantzietan nahi duen dirutza gastatzeko momentu egokiagoak daudela uste dut."
Aurora Argoitia: "Harritu egin nintzen Lehen Jaunartzerako gure herriko Parrokian ezinbesteko araua "habitoa" zela jakin nuenean..."
- 14 BERBETAN**
Pedro Iriondo. Saltzen, saltzen... hogei urte SEAT-en!
- 16 ELKARTEETATIK BUELTAN**
GALIZA ETXEA: ELGOIBARKO GALIZIARREN BILGUNE
- 17 KULTURA**
ANTONIO BLANCO ARGAZKILARIAREN 31 LAN IKUSGAI
- 18 KIROLA**
GAIA: URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA
ELKARRIZKETA: **Luis Agirregomezkorta.**

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 8, larunbata: **YUDEGO**
- 9, igandea: **YUDEGO**
- 10, astelehena: **BIDASOLO**
- 11, asteartea: **BIDASOLO**
- 12, asteazkena: **BIDASOLO**
- 13, osteguna: **BIDASOLO**

14, ostirala: **BIDASOLO**

OKINDEGIAK:

- 9, igandea: **EIZAGIRRE**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Ambulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

Kontuak haizeak bueltan dakartza

Gure egunerokotasunean ere errazago bazaigu zikina bestearen alkondaran geurean baino azkarrago ikustea, hodeiertza iluntzen sumatzen dugunean areagotu egiten zaigu besteen zoritxarra kantatzeko abagunea izateko nahia, itxura denez.

Arazo larrien aurrean elkar lotzeko eta aurrera begira lanegiteko prest dagoen herria garela entzun ahal izan dut maiz, eta zenbaitzutan, behin eta berriro errepikatzen diren uholde madarikatueta legez, hala erakutsi diogu geure buruari, ez? Orduan, ze demontre gabiltza gaur, albokoak aurrera egiten duela ikusteak amorru bizian jartzen gaituela?

Krisi ekonomikoaren itzala, poltsiko zulatua alegia. Beste batek etxerako ogi sobera izan dezakeela susmatzeak geurerako batera utziko ez duelako beldurra ekartzen digu. Lasaiago sentitzen gara denoi gaizki doakigula ziurtatzean, eta besteei neri baino txartoago bada, hobe. Ezaguna zaigun "mal de muchos, consuelo de tontos".

Superbizipen egoismoa, ala? Zuzen deritzot norberak bere ongizatea bestearen gainetik jartzeari, bai, baina hortik besteei buruzko kontu faltsuekin harat-honat ibiltzera ehun metrotako jauzia dagoela iruditzen zait. Inbiria besterik ez den horrek, azken finean beste inori baino gehiago bere etxeari egingo dio kalte, kontuak haizeak bueltan baitakartza, eta egunen batean bakarrik aurki liteke inoren beharrik lukeenean, denen belarrietan izango baitira berak ahoskaturikoak.

Denboraren joanak gauzak konponduko dituela sinetsi nahi dut, denboraldi luzea izango dela ziur dakit ordea. Beraz, ez da gure osasunerako freskagarriago izanen, energiak besteak inbiriatzen inbertitu beharrean zerbait produktiboagorako gastatzen ibiltzea? Ze, nik dakidanez, zorioneko bizpahiru gorabehera, gehientsuenok gaude arazo berberean murgilduta.

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementeria
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Azala**
Azkue
- Administrazioa**
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansoa, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Segundo Raigoso, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Helbidea**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
- Inprimategia**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**
3.000 ale
- Lege gordailua**
SS-1.038/92
- ISSN**
1133-021X

HISPANIA  **ZURICH**

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Fotero

OKINDEGIÀ

OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Eskoriala

Bada gure herrian oso luze jotzen ari den obra edo lan bat. Uste dut dagoeneko mundu guztia konturatuko zela zertaz ari naizen. Bai, noski, Maalako iturriaz ari naiz.

Duela urtebete inauguratutako iturriak oraindik obretan dirau. Azkenaldian astelehenetik ostiralera eta goiz eta arratsalde hor dabilta, jardun eta jardun, inoiz ez dutela amaituko dirudien iturria konpontzen.

Norbaitek zioen beza-la Eskorialak baino luzeagoak dira iturri honen lanak.

Bestalde, zenbat eta

zenbat milioi kendu ote dizkigute elgoibartarroi poltsikoetatik, behin edo birritan bakarrik erabili den iturri hau egiteko? Zer nolako dirutza ari dira gastatzen inoiz ez direla bukatuko diruditen konponketak egiteko? Noizko, eurite handi (edo ez hain handi) bat den bakoitzean urez betetzen diren komunak? Jaunandreok, gauzak ganoraz egin behar dira, edo ez dira egiten.

Bazen hor, orain iturria dagoen tokian bertan, Gaztetxe bat. Mundu guztia ez zegoen Gaztetxean egiten zenarekin ados, eta, noski, ez zuen ados egon beharrik ere.

Baina, kontutan izan behar da, Gaztetxeak (iturriarenak baino diru gutxiagorekin) hainbat kultur zerbitzu eskaintzen zituela, nahiz eta iharduera hauek denon gustokoak ez zirela dakidan. Dena dela, bakoitzak izango du zer erantzun gai honi buruz.

Hala ere, esan beharra dago, Gaztetxea interes politikoak direla medio kendu zutela; eta hor utzitako zuloa betetzeko Eskoriala baino luzeago doan iturria jarri digitela, horrela, elgoibartarron dirutzak gastatuz. Orain, hauteskundeak eta Trinitate jaiak ia aldi berean datozenez, hor ari dira jo

ta su, lanak amaitu ezinik, eta oraindik diru gehiago botaz.

Aski da. Gure herrian iturri bedeinkatu hori baino behar premiazkoagoak daudela iruditzen zait. Ez naiz herriaren egoera ekonomiko negargarriaz ari, are negargarriagoa baita herriaren egoera, edo hobeto esanda, sikute kulturala. Udaletxeak badu, beraz, dirua zertan eta non erabili, "alferrikako" lanetan ibili gabe. Nahikoa du horretarako, begiak ireki eta ingurura begiratzea.

L.A.

ELGOIBARKO IEE/REM ETA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA

Zer dira IEE/REM 2. zikloaren batxilergoak?

HELBURUA:

- Heziketa espezializatua sakondu.
- Goi mailako ikasketak (M3 eta Unibertsitatea) egiteko beharrezkoak diren oinarriak lortu.

EDUKIA: Euskal Herrian 4 batxilergo daude gure eskolan 2 ematen ditugu.

BAG

Administrazio eta Gestioaren Batxilergoa

- Administrazio eta gestio prozesuak
- Informatika
- Ekonomia
- Zuzenbidea
- Matematika aplikatuak
- Hizkuntzak

BTI

Batxilergo Tekniko Industriala

- Teknologia Orokorra
- Fisika-Kimika
- Marrazki Teknikoa
- Teknologia Osagarria
- Matematika aplikatuak
- Hizkuntzak

IRAUPENA: 2 ikasturte

SARTZEKO BALDINTZAK:

- IEE/REMe 1. zikloa gaindituta izatea.





AZKUE

Honoko argazki hau **Mari Carmen Gonzalez**ek lagatakoa da.

Begi zorrotza duzuenok, honez gero igarriko zenuten non aterata dagoen argazkia. Santa Klara eskolako neska talde honen atzeko horma eta eskilarak "Goitxo" etxearen aurreko aldekoak dira eta, kamara aurrean irrifartsu dagoen neska talde hau kurtso bukaera ospatzeko bildu zen. 1959.eko abenduan ateratakoa izan arren, ez dirudi negu gogorra izan zutenik, zenbait neskatxa alkandora hutsean bait daude. Txapela, ordea, insignia eta guzti gainera, ez zen inor ere buruan jartzeaz ahaztu.

Aurreko aldeko iladan dauden neskek, 12 urte zituzten argazkia egindako garaian, baina atzeko aldekoek nabaria da nagusitxoagoak zirela.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen zuten talde hau:

(29 guztira)

Aurretik hasita, lehen iladan eta ezkerretik esku-mara: **Maribel Gomez, Maribi Gurrutxaga, Mari Carmen Gonzalez, Rosi Etxeberria, Mila Arruti, Llanos Fuentes, Juanita Toral, Mari Tere Saez.**

Bigarren iladan: **Lali de la Horra, Karmele Garcia, Nieves Kortabitarte, Maite Arana, Mari Conchi Gabilondo, Mila Osoro, Mari Carmen Elustondo, Pilar Txurruka.**

Hirugarren iladan: **Elena Etxaniz, Maria Luisa Zubiaurre, Arrate Alberdi, Rosi Etxaniz, Isabel Lizarralde, Felisin Garitagoitia, Maria Luisa Etxabe.**

Laugarren iladan: **Mari Cruz Urzelai, Antoñita Irureta, Conchi Arrizabalaga, Mari Carmen Barandiaran, Rosa Mari Mata, Conchi Inza.**

**Zure
publizitatea
hemen,
BARRENen
74 41 12**


karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

**arrieta
modak**
San Bartolome 18
74 08 49

PUB
LAJANTE
elgoibar

Gas Naturala heldu da Elgoibarrera

Urteak dira gas naturala lantegietan eta dendetan erabiltzen dela, eta etxeetan ere ari da sartzen, gogotik gainera. Elgoibarren gas-sarearen eraikuntza fasea amaitzear dagoenean etxebizitzetan instalazioak egiteari ekin zaio. Kanpoko enpresek lan merkatu berria ikusi dute gure herriko etxebizitzetan eta bertakoekin instalazioak ipintzeko norgehiagoka ari dira.



Alde zaharreko erregulatzailerak guztiak frontoi ostean jarriko dira.

Gas naturala irailaren hasierarako erabili ahal izango da instalazioa egin duten Elgoibarko zenbait etxebizitzetan. San Roke auzoko dorre batzutan gasa etxe barruraino eramateko instalazioa egiten ari dira. Gasaren lehen fasea deritzona, hau da, lurrazpiko tubo edo hodi sarea eginda dago, Pedro Muguruza eta ibaiaz beste aldeko lekuetan ezik. Duela gutxi, Plaza Handiko frontoi ostetik Errosario kalerainoko lotura bukatu dute. Arazo estetiko eta ekonomikoengatik, alde zaharreko etxeetako erregulatzailerak frontoi ostean egingo den kutxa batean zentralizatuko dira, etxebizitza bakoitzean erregulatzailerak bana ipini beharrean. Herriko beste zonalde guztietan etxe-

etako instalazioa jartzen has daiteke eta, dagoeneko San Roken auzokide batzuek horretan dihardute. Baina honi lotuta etorri da nahasketa. Ez dago batere argi nor dagoen etxeetako instalazioa egiteko baimendua eta, gainera, kanpoko enpresa batzuek, Elgoibarren hasi berri den gasaren merkatu honetan ez dute aukerarik galdu nahi.

Baimenak

NaturGas, gasa etxeetara hel dadin behar den sarea eraikitzen dabilen enpresa da. Sare hau etxebizitzetan ataritik gertu dauden lotune balbuletan bukatzen da. Baina gasa etxeraino hel dadin, beharrezkoa da gasa garraiatuko duten hodian instalazioa egitea. Lehendabizi gasa etxeko leihoraino

eramane behar da eta ondoren etxe barruko sukalde edo berogailuarekin lotu. Lan hau egiteko orduan hainbat enpresak beraien zerbitzuak eskaini dituzte bertoko iturginei aurrea hartuz.

NaturGasek, herrietako lurrazpiko sarea egin ondoren, etxebizitzetako instalazioa egiteko enpresa batzuk izendatzen ditu. Normalean, Naturgasek enpresa instalatzaile hauen artean banatzen du etxebizitzetan egin beharreko lana. Lan hau burutzeko beharrezkoa da "gas instalatzaile" baimena eskuratzea. Baimen hau Gipuzkoako Energiaren Lurralde Ordezkaritzak eman ohi du. Edo gauza bera dena, edozein iturgintza enpresak gas instalatzaile baimena lortu

**NaturGasek,
herrietako
lurrazpiko
sarea egin
ondoren,
etxebizitzetako
instalazioa
egiteko ardura
enpresa
batzuren esku
uzten du.**

behar du, IG deritzon txartela.

Auzokide batek, beraz, NaturGasek proposatutako enpresari eman diezaioke bere etxeko instalazioaren lana edo, hala nahiago balu, gutxienez, IG2 txartela duen herriko iturginarengana jo dezake.


Instalazioa

Gas etxeko atarian dagoela, gasaren presioa erregulatatzeko tresna jartzen da etxe multzo bakoitzean. Hemen-dik, gasaren hodiak, ura eta argiarekin egiten den bezala, kontadore batzuetatik pasa ondoren etxeko leiho alborai-no eramaten dira eta sukalde edo berogailuarekin lotu. NaturGasek izendatutako enpresa instalatzaileek prezio finkoak ezarri dituzte. Dena den, etxe multzo bakoitzean gasaren instalazioa jartzea erabakitzen duten auzokideak zenbat eta gehiago izan prezioa ere baxuagoa izango da.

Edozein instalazio egin ondoren eta gasa banatzen hasi aurretik, NaturGasek instalazioa errebisatu eta bere oniritzia eman behar du.

Gasaren prezioak

Ura litrotan neurtzen



Gas naturala merkeagoa izateaz gain, ez da gorde behar.

bada, gas naturala termiatan neurtzen da. Bizilagunentzat bi tarifa mota daude NaturGas enpresakoek adierazi digutenez: D-1, urtean 5.000 termiako gastua eginez gero eta D-2, urtean 50.000 termiatik beherako gastua eginez. Badago hirugarren tarifa, D-3 izenekoa, aurrekoak baino merkeagoa, baina finka handietarako baino balio ez duena. Tarifa honen arabera, urteko termia gastua 50.000tik gorakoa izan

behar da.

Zergatik gas naturala?

Gas naturala lur edo itsaspetik ateratzen da. Material organikozko boltsak usteltzen direnean sortzen da gas mota hau. Gas naturalari, ateratakoan duen zikinkeria apurra kentzen zaio.

Gas mota honek dituen abantailen artean, bat, merkeagoa izatearena da, petrolioarekiko dugun menpekotasuna arinduz.

Bestetik, beste energia mota batzuek baino arrisku txikiagoa du. Gas hau gorantz joaten da eta ez du usainik normalean. Horregatik, produktu berezi bat eransten zaio, hodietatik ihes egingo balu, ihesa non gertatu den jakin ahal izateko.

Material organikozko boltsak usteltzen direnean sortzen da gas mota hau. Gas naturalari, ateratakoan duen zikinkeria apurra kentzen zaio.

INSTALAZIOAREN BATAZBESTEKO PREZIOAK

Leihoraino instalazioa	100.000 pta.
Barruko instalazioa	30.000-50.000 pta.
Kontadorea erostea	16.667 pta.
Inspekzio eta alta eskubidea	19.700 pta.
Kontadorea alokatzea	171 pta hileko

LANDA HARATEGIA

San Frantzisko 23, Tel. 74 27 58

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

L
E
H
I
A
K
E
T
A

Lehiaketa honetan parte hartzeko, maiatzeko 3 lehenengo asteetan egingo ditugun galderei erantzun beharko diezue.

Hiru erantzunak daukazuenean, bete azpian dagoen fitxa eta bidali **BARRE**na. Hiru galdereei zuzen erantzuten diozuenon artean, **CORBERO GARBIGAILU ZORAGARRI** bat zozketatuko dugu.

Erantzunak jasotzeko azken eguna, maiatzaren 30a izango da. ZOZKETA, berriz, **ekainaren 1ean** izango da ARTEGI dendan, arratsaldeko 8etan.

Aste honetako galdera:

Zer denda mota zen ARTEGI elektragailuak saltzen hasi aurretik?

ARTEGI



Corberó

1. ERANTZUNA.....

2. ERANTZUNA.....

3. ERANTZUNA.....

IZENA.....

ABIZENAK.....

HELBIDEA.....TFNOA.....

BIDALI ERANTZUNAK: elgoiBARREN. Nafarroa enparantza 2 . Elgoibar.

ZALDUA

eta

TELLABIDE

ITURGINTZAK

- ⇒ **Gas instalatzaileak
IG2 lizentziarekin**
- ⇒ **Berogailu instalakuntzak**
- ⇒ **Iturgintza lanak**

Tellabide
Azpilgoeta 19
Mendaro
☎ 75 50 62

Zaldua
Urasandi 26
Elgoibar
☎ 74 05 30

Nola jantzi behar lirateke neskak Lehen Jaunartzerako?

Jazkia edo habitoaren alde, dudarik gabe, Lehen Jaunartzea egiteko modurik errazena iruditzen baitzait.



Nire iritiz, Eliza barruan, posible den heinean, orden eta berdintasun bat mantendu behar litzateke. Hau da, ez dut uste Eliza fantasiako toki edo unea denik. Familia askok ezinezkoa egin beharko lukete beraien alabak alboan dituzten lagunen antzera jantzi ahal izateko. Habitoaz haurrek ez dute egon daitezken desberdintasunak zertan jasan

Denok elkartu behar garen momentua da, gure seme-alabei konformitate zentzu bat emateko.

Nire Jaunartze eguna gogoratzen dut. Eguzoragarria igaro nuen, zorion eta liluraz beterik. Baina gauza bat datorkit burura: urte haietan jazten genituen jazki zoragarri haiek. Zein baino zein dotoreagoak ziren, emaztegaien itxura geneukan. Egia esan, ni gehien poztu ninduen, pres-

tatu zidaten soineko polit hura jaztea izan zen.

Baina orain ohar-tzen naiz, ez al litzateke hobe izango, bai orduan eta bai orain, Lehen Jaunartzeak duen zentzuari garrantzi gehiago ematea, jantzi politari baino?

Bakoitzak bere seme alaben jantzi-tan nahi duen dirutza gastatzeko momentu egokiagoak daudela uste dut.

Gaur egun, Elizari eskerrak eman behar genizkioke gure alabentzako jazkiak edukitzeko aukera dugulako, zuzenean katekistengana joanez gero.

Hala eta guztiz ere, polemikak azalduko balira, behar bada, neska eta mutilen jantzien arteko diferentziagatik izan beharko litzateke.

Conchi Eguren



Elizak aitzinatik izan du ospakizunekin lotura haundia, eta egia esan, azken urteotan ospakizun hauek indarra hartuz joan dira, bestela, ikusi besterik ez dago zenbat bikote gazte ezkontzen den gaurregun elizaz eta honek suposatzen duen nabarmentasunaz.

Harritu egin nintzen Lehen Jaunartzerako gure herriko Parrokian ezinbesteko araua "habitoa" zela jakin nuenean. Gainera, gurasoen iritzia kontutan izan gabe. Baina are harrituago geratu nintzen "habito" delako hori neskek bakarrik eraman behar zutela jakitean. Izan ere, mutilek ohizko kale-erropa jantzi dezakete.

Hau dela eta, Parrokia honek emakumeekiko egiten duen diskriminazioa ikusirik, nire ezadostasuna azaldu nuen eta horra non erantzun zidaten, mutilak habitoz irrigarri geratzen direla. Erantzulea gizonezkoa zen, noski. Ni erabat ados nago. Mutilak habitoz, neskak bezain irrigarri daude.

Jarrera honek, emakumea diskriminatu besterik ez du egiten, bigarren mailako hiritar bezala kontsideratuz eta haurtzarotik

nabarmenkeriaren pekatuak geureak direlako uste horretara kondenaturik. Baina buruan zerrautsa baino gehiexego daukan edonork, badaki haundikeria hori ez dagoela sexuari lotua, emakumea nahiz gizona izan eta duen kultura eta maila soziala daukalarik ere.

Nire ustez, gure seme alaben lehen jaunartzea desbideratzen ari gara. Umea aitzakia delarik diru xahutze eta harrokeriazko jai bat bilakatu dugu. Guraso, anaia-arreba eta noski, jaunartzea hartu beharreko mutilentzat arropa berria erosten dugu, baina neskatoak ezin joango dira nahi bezala apainduta.

Guiztiok hausnartze-ko jaia dela esango nuke eta ez dut uste, habito bai- habito ez galderari hain erraz erantzun dakiokenik.

Aurora Argoitia
(Erredakzioan itzulia)

Nola jantzi behar lirateke neskak Lehen Jaunartzerako?



Mari Carmen Iglesias
35 urte, langabetua

Gaur egun habitoarekin. Neskatiñen artean difirentzia asko egongo litzateke bestelako jantziekin egingo balute. Gaizki sentituko lirateke, batzuk besteak baino hobeto joango liratekeelako.




Conchi Arriola
41 urte, etxeoandrea

Habitoarekin. Berdintasunagatik batez ere. Bestelako jantziñtan ezin da muga bat jarri, horregatik gehiago ahal dabanak soineko hobia egingo leuke eta umiek horri inportantzia ematen diobe.



Xabier Etxeberria
39 urte, mekanikoa

Egia esan ez dut inoiz pentsatu. Normalena izango zan bakoitzak eramatia nahi duena. Jaurnatzea bihotzez egiten duten gauza bat da eta jantziak eta egiten diren bazkariak absurdoak dira.



Anjel Kruzelegi
45 urte, mekanikoa

Nere ustez ez dago ondo habitoa derrigorra izatea. Habituak igualtasuna eman leike aberatsa eta ez duenaren artean. Mutikueñtan, pena hartzen dute ama batzuk mariñeru joaen lagatzen ez dielako.



Conchi Blasco
41 urte, etxeoandrea

Ez zait habitoarena ondo iruditzen. Norberak nahi duen bezala jantzita egin beharko luke jaurnatzea. Mutilak nahi duten bezala doaz, diskriminazio handia dago.



Feli Agirre
60 urte, etxeoandrea
Habituñtik erten ezkeru, difirentziak notatu egiten dira umien artian. Batzuk ahal dute eta beste batzuk ez. Neretako igualdadia. Hor ez dao enbidixarik.

Martxoaren 30etik -Maiatzaren 30era

Udaberri-Uda



Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkartea

Zozketa

✿ Sariak: TXANKAKUARO dendetan gastatu ahal izango diren 35.000 pta.ko 6 erosketa txartel.

✿ Zozketa data: Ekainak 4

✿ Sari banaketa, ekainaren 24ean izango da Kultur Etxean.

Txankakuak urtebete egingo du laster

Datorren maiatzaren 19an, iluntzeko 8,30etan, Batzar Orokorra izango du Elgoibarko Txankakua Elkarteak. Honoko gai hauek hitz egingo dute bertan: ACOGI, Txankakuaren kanpainak, zuzendaritzaren berriztapena, balantze ekonomikoa, etab.

Txankakuak, Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak, urtebete darama herriko merkataria txiki eta zerbitzuen defentsaren alde lan egiten. Pasatako urtean zehar egindako lana guztiz positiboa izan dela adierazi digute.

Txankakua sortu zenean 45 bazkide besterik ez ziren eta egun 72 dira. Gainera, ACOGI, Gipuzkoako Merkatarien Elkartearen sortzaileetarikoa izan dira Txankakuako kideak, beste 14 herritako merkataria elkartekin batera. Bestetik, herritarrak bertoko dendetan beraien erosketak egitera bultzatzeko, sari kanpainak antolatu dituzte, Udaberrirako kanpaina antolatu duten bigarrena delarik.

Bizkaira ibilaldia 3. adinekoentzat

Elgoibarko Zaharren Biltokiak Bizkaiko bazterrak ezagutzeko ibilaldia antolatu du hilaren 15erako. Ibilaldira joan nahi duen guztiak Zaharren Biltokiko idazkaritzan izena eman beharko du maiatzaren 11ean, goizeko 10ak eta eguerdiko 12ak bitartean.

Arnaldo Otegi berriz etxean

Arnaldo Otegi euskal preso elgoibartarra pasa den asteartean, hilaren 4ean, askatu zuten. Arnaldok lau urte eta zazpi hilabete egin ditu guztira Estatu espainoleko gartzela ezberdinetan, eta bere etorrera dela eta, herrian hainbat ekintza antolatu dira. Ostiralean, hilaren 7an, iluntzeko 8etan, Plaza handian ongietorria emango zaio eta, 9,30etan KIMETZ elkartearen afaria izango da.



Kontenedoreak zertarako?

Udaltzaingoak bidalitako argazkiak dira honako hauek. Zabor poltsak lurtean utzi aurretik kontenedore guztiak beteta dauden ala ez begiratzea eskatzen du Udaltzaingoak, argazkiek adierazten dutena gerta ez dadin. Lau kontenedore hutsik zeuden eta hala ere, zaborrak lurtean pilatu dituzte jendeak. Alperkeria alde batera utzi eta ea hurrengoan kontenedorak gure zabor poltsentzat lekurik duten begiraten dugun!



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Elgoibarko Herri Eskola gogor euskararen alde

Elgoibarko Herri Eskolak haurren euskalduntze aldeko apustu gogorra egin du. Hau dela eta, eskolako haurrek, euskararen erabilera sendotzekotan hiru egunetako egonaldiak egin dituzte Zarauzko barnetegian. Orain artean bi txanda izan dira; lehenengoa, 1. 2. eta 3. mailetako ikasleentzat eta bigarrena, 4. eta 5. mailetako ikasleentzat. Azken txanda, datorren maiatzaren 3tik 5a arte izango da Baionako barnetegian eta 6. mailako ikasleei zuzenduko zaie.



Gaztetxea bota zutela bi urte bete dira aste honetan. Hori dela eta, Gazte Asanbladak hainbat ekintza antolatu ditu aste bukaerarako. Maiatzak 8an, larunbata, arratsaldeko 6etan Futbolin eta ping-pong txapelketa izango da. 8etan Gaztetxearen aldeko manifestari emango zaio hasera ondoren oartekoak banatuko direlarik. Gauean herriko hiru rock taldek antolatutako kontzertua izango da Maalako parkean. Azkenik igandean, "Ez genuen 68ko maiatza ezagutu baina beste batzuk bizi izan ditugu" izenpeko erakusketa arratsaldeko 6etatik aurrera.



KORRIKA 8.a eskerrak emanaz

Elgoibarko AEK euskaltegiak, guztiz positibotzat jo du KORRIKA 8.ak gure herrian izan duen arrakasta, bai partaidetza aldetik bai ekonomi aldetik.

AEK euskaltegiko arduradunek, nagusien KORRIKaz gain, arratsalde 3 ikastetxeen artean antolatutako KORRIKA txikiaren arrakasta azpimarratu dute, baita KORRIKAREN inguruan antolatutako ekintzek izandako arrakasta ere.

Honez gain, AEK euskaltegiak herritarren laguntza eskertu nahi du eta adierazi, euskararen normalizazioak, horrelako ekintzez aparte, eguneroko lana behar duela.

Zazpikiko zozketa

Zazpiki Irratiak egindako minikatearen zozketan 584 zenbakia atera da saritua. Zenbakiaren jabeak 15 eguneko epea du saria jasotzeko. Harremanetarako Zazpikiko telefonora deitu (74 34 74).

1943. urtean jaiotako bilera-jai

Urtero bezala, 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrak ekainaren 12an, larunbata, 50. urtemuga ospatzeko bilduko dira. Horretarako sortutako komisioak hainbat ekintza antolatu ditu. Eguerdiko 12,30etan San Bartolome parrokiari ospatuko duten mezarekin hasiko dute eguna, bertan Haritz Dantza taldeak parte hartuko duzlarik. Ondoren anaiarteko bazkaria izango dute orkestina eta guzti. Jaialdira joan nahi duen edonork, KUTXAko 0120598164 zenbakian 6.500 pezeta sartu beharko ditu maiatzaren 31a baino lehen.

Saltzen, saltzen... 20 urte SEAT-en

55 urte dituen gizon honek 40 daramatza Elgoibarren. Beraz, Iruran jaio zen arren, elgoibartarra dela esan dezakegu. Tornu fabrika batetan

programadore jefe bezala aritu ondoren, duela hogeit hamar urte SEAT etxean sartu eta bertan geratu zen. Saltzailea da, kotxe saltzailea.

-Zer behar da kotxe saltzaile ona izateko?

-Pazientzia handia. Era berean, oso garrantzitsua da merkatuan ematen diren azken berrikuntzak ezagutzea, eta beharrezkoa kotxe bakoitza, bezeroak dituen behar konkretuei egokitzeko gaitasuna izatea. Askotan jendeak ez du oso argi izaten zein den berak nahi duen kotxea, ziurtasuna, erosotasuna edo beste zer bilatzen duen... Horrelako kasuetan, saltzaileak pertsona horren behar izkutuak aurkitu behar ditu eta horien arabera kotxe bat eskeini. Baina, batez ere, saltzaileak konfidantza osoa izan behar du eskeintzen duen produktuan. Norberak bere eskeintza onena dela sinesten badu, erosleei ere sinistaraziko die.

- Zein da lanbide honen alde positiboa?

- Jendearekiko tratua, erlazioa, eta eroslea beteko duen zerbitzu bat eskeintzeko aukera gure esku izatea.

- Eta gogorrena?

- Bezeroak dituen behar eta gustu konkretuei erantzuneko dien produktua zein den jakitea.

-Nabari al duzue krisia-



Norberak sinesten badu, besteei sinestaraziko die.

ren eragina zuek ere?

-Bai, noski. Jendeak beldurra dauka, ez da erostera ausartzen. Aurten salmentak %40a jeitsi dira iazko indizearekin konparatuz.

-Eta horrelako egoera baten aurrean kotxeen salneurriak beherantz egiten du ala, alderantziz, gorantz?

-Igo, kotxeen prezioak igo egin dira. Dena dela, jendeak kotxerik ez erostearen arrazoia ez da prezioen igoera. Pertsona batek kotxea erosteko beharra badauka, erosi

gingo du. Hor prezioaren gorabeherak ez dauka eragin handiegirik.

-Azken bolada honetan kotxe guztiek antzeko linea bat daukate. Asmatzeko ezer gertatzen al da?

-Hor modak zerikusi handia dauka. Orain biribilduak eramaten dira, lehen lauki itxura ematen zitzaien, gero beharbada hirukiak egingo dituzte... Auskalo! Baina kotxearen arloan gauza asko dago oraindik ere asmatzeko, teknologikoki behintzat. Urtez-urte

aurrerapen handiak ematen dira, hor daukagu kotxe ekologikoak eta zenbait tokitan elektrikoak, alkoholez mugitzen diren automobilak ere ikusten dira.

-Kotxeak ez dira falta. Aparkalekuak, ordea, ez daude soberan.

-Hori, gobernuaren, administrazioaren egin-beharrak da, horretarako ordaintzen dugu herritarrok hainbeste zerga. Gainera, kotxeak eskariaren arabera fabrikatzen dira eta ez neurri gabe, gero-almazenetan pilatzeko.

-Nola ikusten duzue etorkizuna?

-Gauzak ez dira egun batetik bestera aldatzen, noski. Baina nik uste egungo krisi hau epe laburrera hobetuko dela, urte honen bukaera aldera edo.

-Beste hogeit hamar urte SEAT-en?

-Ziur! Beti egon izan naiz SEAT-en. Dagoen onena da barren! Neretzat bai behintzat, ziur gainera!

-Kotxerik ba al daukazu?

-Bai, SEAT Ibiza bat, diesel.

Jasone Osoro

Mari Jose Ecenarro

Gozotoki dendakoa

-Noiz zabaldu zenuen denda?

-Orain dela 11 urte.

-Zergatik gozoki denda bat?

-Elgoibarren momentu hartan oso gitxi zaozen eta gustatu egiten jata.

-Ze bezero dira konstanteagoak, helduak ala umeak? -Gehien, umiak, baina nausixak ere asko; gurasuak umiekin...

-Urte hauetan umeen gustuak asko aldatu al dira? -Neretza-ko umiak beti umiak dira, berdin samar.

-Pazientzia handia izan behar al da umeekin? -Ez, gustatzen bajatzu umiekin lan egitea oso erreza da.

-Zer da gehien saltzen duzuna? -Gehien gozokiak, gero jostailu merkeak, konbitietarako jolasak, erregaluak...

-Egunean zehar noiz duzu lan gehien? -Lan gehien astebukeratan, bestela goizetan pertsona nagusiak, enkarguak eta horrelakoak, arratsaldian ume gehiago.

-Etxeberrin jaio den bergarar bat, zer moduz moldatu da Elgoibarren? -Oso ondo, ez dot euki problemarikan.

-Gauza gozoz inguratuta egoteak tentaziorik ematen al ditu? -Ez, gogua badaukazu jan eta kitto.

-Egia ala gezurra? -Egia.

-Txokolate tarta ala bakilaua saltsa berdean? -Lehenengo bakilaua eta gero tarta bat gainian.

-Gozoak atsegin ez dituen inor ezagutzen al duzu? -Oso gutxi, baina gozoak ez bajakoz gustatzen umiari, jolasak gustatzen jakoz.

-Denbora librean zer gustatzen zaizu egitea? -Buelta bat eman edo familiarekin egon.

-Desio bat? -Orain arte bezela lanian segitzia.

-Bukatzeko, "olantxe eskerrikasko"....

-Bai ohitura bat da, Bergaran dependienta hasi nintzanean hango jabiak beti esaten zidan klientiari eskerrikasko esateko, estimatzeko, eta sartu jata horrenbeste, askotan umiek ere barre egiten dabela.

Belen Arrizabalaga



BERTSOTAN

JAUNARTZEA

Doinua: Loreak udan

Jaun hartzearen nerbiosismoak etortzen dira urtero fetxa eder hau iristekotan gurasoak bero-bero larrialdiak etxe denetan bazkariko txandak hartzeko urte guztia itxaron eta bazen garaia heltzeko.

Astean zehar edukitzen dute txit alaia begirada horregatikan etxeko denak oso pozik jartzen gara egun horretan bikain jantzita juten gara elizara ume hauetxen sentimentua esplikatzetik ba al da?

Kepa Mendikute

URZELAI

ELEKTRIZITATEA-ARGIGINTZA

Santa Ana, 12-14 - Tel. 74 13 76 Elgoibar

JOSE ANGEL ZABALA

URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

MAITE

GOZOTEGIA

IZOZKIAK

Berton eginak

San Frantzisko, 15
Tel. 74 16 88





Galizia Etxea: Elgoibarko galiziarren bilgune

Galiza Enparantza

izena zeukaneko plazan dago Galizia Etxea. Galiziar kultura, gastronomia barne, gorde eta suspertzeko asmoarekin sortu zuten elkarte. Eta bai lortu ere. Izan ere, Galizia Etxean galegoz hitz egiten dute eta sukalde gaietan ere, beraien herriko jakiak prestatzen dituzte.



Elgoibarko Galizia etxeko Tuna Anduriña

Soziedade guztiak bezala, lagun kuadrila batek sortu zuen elkarte. Hasieran 95 inguru lagun baziren ere, azkenean 35 bat bakarrik gelditu ziren.

Galizia Etxekoek Galiziako Xuntaren eta Ourenseko Diputazioaren laguntza jasotzen dute *Dia das letras Galegas* deitzen dena antolatzeko. Lokalak behar duen edozein berrikuntza burutzeko ere Galiziako erakundeen laguntza dute. Horrelako laguntzak jasotzeko Galizia Etxekoek "galiziar-ta-

sun" izendapena lortu behar izan dute, baldintza batzuk betez gero.

Galiziako kultura suspertzeko ekintza asko antolatzen dituzte. Datorren astebukaeran, hain zuzen, *Dia das Letras Galegas* jaia ospatuko dute. Aste bukaera honetan jai giroan murgilduko badira ere, egun "fuertek" datozen larunbat eta igandea dira. Jaien arrazoia honoko hau da: Urtero, maiatzean, Galiziako idazle bat omentzen dute eta, hortik *Dia das Letras*

Galegas izena.

Galiziako ohitura, sukaldaritza eta folkloreak adierazgarri dira egun hauek. "Chaves jokua" esaterako, burdin zati batzuekin 14 metrotako distantzian kokatutako gurutze bati ematean datza.

Bestetik, Galiziako jaki tipikoen dastaketa (olagarroa, enpanada, lakoia eta orellak) oso garrantzitsua izan, ohi da jaiotan. Folklore aldetik, urtero, Manzanedako Gaita taldea eta Elgoibarko "Tuna Anduriña"ren

emanaldia izaten da azpimarragarriena. Aurten, Xacobeo 93 kanpainaren barruan, Euskal Herriko Hermandadeak Santiagora joateko ibiladia antolatu zuen baina, dirudienez, Elgoibarren ez du arrakasta handirik izan deialdiak, sei lagun bakarrik apuntatu baitziren.

Urtean zehar Galizia Etxekoek hainbat ekintza burutzen dituzte: Ihauterietan, mozorro txapelketa. Maiatzaren bukaeran Galiziako Etxeen Hermandadeak Galiziako Eguna ospatzen du. Donostian, ekainaren hasieran, etxe erregional guztien eguna ospatzen dute. Azaroan 11.ean, "Dia de los Magostos" edo gaztañerre eguna ospatzeko, gaztaina erreak eta ardoa banatzen dute elkarteetan. Eta urtero, bi txango antolatzen dituzte, bata, bazkideentzat Errioxara, eta, bestea, Tunan dabilentzat.

AINGIRA ENPANADA

OSAGAIK: Kilo bat masa ogi, kilo bat aingira (ederrak), olio, eta azafrana

NOLA EGIN: Aingirak garbitu eta zartaginetik pasatu piska bat egin daitezten. Azafrana disolbatu eta aingirak horrekin igurtzi. Enpanadaren masa prestatu eta aingirak prijitu ondoren masaren beheko partean aingirak jartzen joan espiral forma ematen. Enpanada goiko partearekin estali eta labean sartu egin arte. Enpanada "Riveiro" ardoarekin dastatu behar da.

FITXA TEKNIKO

Sorrera urtea: 1978

Presidentea:

Camilo Otero

Bazkide kopurua: 47

Urteko kuota: 12.000

Berezitasuna:

Kultura galiziarra

Helbidea: Kalamua 12

Antonio Blanco argazkilariaren 31 lan ikusgai



Antonio Blancoren argazkietariko bat.

Asteazkenetik maiatzaren 22a arte, Antonio Blanco argazkilari kataluniarraren 31 argazki ikus daitezke Kultur Etxeko erakustaretoan.

Zuri eta beltza dira Antonio Blancok erabiltzen dituen kolore bakarrak eta herrian ikusgai duen argazki bildumaren gaia paisaia da. Blancok, azken bost urteotan, Nafarroan, Huescan, Ordesan eta Arizonan ateratako argazkiak ditu erakusketan.

Erakusketa, Elgoibarko Ongarri elkarteak antolatu du eta erakusketaren ordu-tegia arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean izangoa da, astelehenetik ostiralera.

Xirrixta haur-hilabetekaria Elgoibarren

Euskara hutsez egindako haurrentzako Xirrixta hila-betekaria, Elgoibarko eskola guztietan aurkeztu da egunotan. Iparraldean nahiko hedatua dagoen aldizkaria, hegoaldeko herri ezberdinetara zabalitzen ari da. Elgoibarko ikastetxeetan Xirrixta aldizkariaren haur adina ale banatu dira eta beste horrenbeste harpidetza txartel. Urte osorako 4.000 pezetako harpidetza eginez gero, hilero hilero Xirrixta etxera iritsiko

zaio haurrari, bere izenean.

Lau urtetik gorako haurrentzako aldizkariaren helburua, haurrengan, txikiak direnetik, irakurketarako zaletasuna piztea da, jolas, eskulan, irakurtzeko irudi, ipuin, komiki, erreportaia eta abarrez baliatuz.

Pertsonaia eta elkarrizketa ximpleen bidez, euskalki ezberdinen ezaugarriak biltzen ditu Xirrixtak, haurrak, txikitatik, euskara aberatsa jaso dezan.



ARRIETA

ORTOPEDIA


Bidebarrieta 4, Eibar
Tel. 11 84 10

Richi Fleapaindegia

KIROMASAIA

- GERRIKO MINAK - ERREUMAK
- ZAINTIRATUAK - ARAZO MUSKULARRAK

Errosario 6 - 1 Tel. 74 30 11





DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ezk. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53



URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Sei hilabete inguru pasa ondoren, Elgoibarko Futbito Txapelketa azken txanpan sartu da. Liga erregularra amaitu zaigu eta dagoeneko ezagutzen ditugu liga jokatzeko sailkatu diren zortzi taldeen izenak: *Pedrusko, Ametsa, Garajes Garcia, Lagun-Toki, Kosakos, A.R. Egaña, Karkis eta Txirristaka*. Beraz, talde hauen artean erabakiko da aurtengo txapelduna. Bitartean, gainontzeko talde guztiek koparengatik borrokatzearekin konformatu beharko dute. Liga nahiz Kopa irabaziko dutenen izenak ekaineko lehen asteetan ezagutuko ditugu, baina une erabakiorrak asteburu honetan bertan hasiko dira Kopako lehen kanporaketekin. Beraz, onenek irabaz dezatela!

SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA

A Taldea	PARTIDUAK				Puntuak	
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.	
1. KOSAKOS	12	9	2	1	20	
2. A.R. EGAÑA	12	8	3	1	19	
3. KARKIS	12	6	4	2	16	
4. TXIRRISTAKA	12	8	0	4	16	
5. URASANDI	12	7	1	4	15	
6. RUA	12	7	0	5	14	
7. ARROAK	12	5	3	4	13	
8. B. AMISTAD	12	5	0	7	10	
9. KING KONG	12	2	5	5	9	
10. B. CASERIO	12	3	3	6	9	
11. GORRI BELTZ	12	3	0	9	6	
12. TXINTXIMINAK	12	1	3	8	5	
13. XIRULA	12	1	2	9	4	

B Taldea	PARTIDUAK				Puntuak	
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.	
1. PEDRUSKO	13	12	1	0	25	
2. AMETSA	13	10	2	1	22	
3. GAR. GARCIA	13	9	1	3	19	
4. LAGUN TOKI	13	8	1	4	17	
5. MIMOX	13	7	1	5	15	
6. TXURI URDIN	13	5	2	6	12	
7. UNIV. DE CHILE.	13	4	4	5	12	
8. GAZTEAK	13	5	1	7	11	
9. A.R.E.	13	5	1	7	11	
10. LANBROA	13	3	3	7	9	
11. M.R.W.	13	2	4	7	8	
12. FONT. JOSERRA	13	4	0	9	8	
13. BERROGEI DURO	13	3	2	8	8	
14. SPORTING	13	2	1	10	5	

TALDE GOLEGILEENA

MIMOX58 gol
 A.R. EGAÑA54 gol
 PEDRUSKO53 gol

GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA

AMETSA13 gol
 KOSAKOS14 gol
 A.R. EGAÑA17 gol



GOLEGILE ONENA

J. Romero (G. GARCIA)32 gol
 Bermudez (A.R. EGAÑA)29 gol
 Bermudez (A.R. EGAÑA)16 gol
 Alonso (LAGUN TOKI)16 gol

Nola ikusten duzu zure ekipoa ligako azken fase honetan?



Roberto Garcia
(Pedrusko)

Pasa den urtean bezala aurten ere irabaz dezakegu. Aurten, 12 partidu jokatu eta ez dugu batere galdu. Irabazteko aukera handia dugu, baina besteak ere hor daude.



Felipe Kastrillejo
(KosaKos)

Ondo ibiliko garela uste dut. Baina partidu guztiak finalak direnez, dena partidu bakar batera jokatzen da. Guztiok antzerako aukerak dauzkagu, baina Egaña eta Pedrusko...



Ramon Zapata
(A.R. Egaña)

Guztiak oso parekoak gera. Pasa den urtean finalerdiara heldu ginen. Gu gera espertoenak, lau edo bost aldiz irabazi bait dugu. Kosakos, Pedrusko eta gu gara faboritoak.



Karmelo Sanz
(Ametsa)

Pasa den urtean 2. geratu ginen eta aurten ere, gu txienez hori lortzen saiatuko gara. Faborito edozein talde izan daiteke, partidu bakar bat jokatuko baitu bakoitzak.



Juan Antonio Aguilar
(karkis)

Taldean bi jokalaririk falta dira soldaduzkan daudelako eta nik 19an joan behar dut. Dena den, iaz baino hobeto gaude ligako azken fasera heldu garela, baina gu ez gera faborito.



Fernando Garcia
(Garajes Garcia)

Hiru urte daramagu jokatzen eta orain gaude hobetuen. Espektatiba asko ditugu, baina talde gogorra tokatu zaigu, horregatik gauzak nahiko zail daude. Halere, ezer ez da ezinezkoa.



Anton Iranzo
(Lagun-Toki)

Kosakos-en aurka tokatu jaku jokatzea. Zaila da baina irabazten ahaleginduko gara. Pasa den urteko seigarren postua berdintzen saiatuko gara. Zaila da esatea nork irabaziko duen.



Cecilio Manteca
(Txirristaka)

Hasiera batetan, esan, gu errebotez sartu garela, baina partidu bakar batetara edozer gerta daiteke. Iaz baino aukera gehiago dugu ez direlako ligako puntuak kontutan hartzen. Faboritok? Txirristaka!

***** DATOZEN PARTIDUAK *****

LIGA

MAIATZAK 23

- 11etan A.R. EGAÑA - GARAJES GARCIA
- 11etan AMETSA-KARKIS
- 12etan KOSAKOS-LAGUNTOKI
- 12etan PEDRUSCO-TXIRRIKATA

MAIATZAK 30

Final erdiak

KOPA

MAIATZAK 9

- 9etan 40 DURO - SPORTING(7)
- 10etan B. CASERIO - M.R.W.(6) eta KING-KONG - JOSERRA(5)
- 11etan LANBROA - AMISTAD(4) eta GAZTEAK - GORRI-BELTZ(3)
- 12etan A.R.E. - XIRULA(2) eta TXURI URDIN - TXINTXIMINAK(1)

MAIATZAK 23

- 9etan 4-7 (d) eta 3-5 (c)
- 10etan 1-2 (b) eta URASANDI -6 (a)

MAIATZAK 30

- 9etan ARROAK-b eta UNIV. CHILE-a
- 10etan RUA-C eta MIMOX-d

Joku eskolarren azken fasea jokatu da maiatzean

Elgoibarko bi ikastetxeko hiru talde, futbol salako final laurdenetara iritsi dira. Infantil mutiletan, Herri Eskolako Lepoluzeak, infantil nesketan, Ikastolako Ikas-onenak eta alebin mutiletan, Ikastolako Ikas-txaip. Final laurdenak larunbat honetan izango dira. Finalerdiak, berriz, maiatzaren 15ean jokatu dira eta irabazleek, maiatzaren 22an, finalak jokatu dituzte.

Saskibaloian, alebin mutiletan, Ikastolako Ikas-dream-team taldeak eta nesketako Ikas-Lakers taldeak larunbatean jokatu dituzte finalerdiak. Finala maiatzaren 15ean izango da.

Azkenik, eskubaloian, Ikastolako alebin mutilak finalerdietara heldu dira. Partidua larunbat honetan jokatu da.

Hasi da " III. Trinitate txapelketa"

Aste honetan jokatu dira "Elgoibarko III. Trinitate txapelketa"ren lehendabiziko esku-pilota partidua. Egunaldi eguzkitsua lagun, jende mordoska bildu zen partidua jokatu ziren egunetan. Guztira 70 partidu jokatu dira, alebin eta benjaminen kategorian. Astelehen eta asteazkenetan Plaza handiko frontoian izango dira partidua eta astearte eta ostegunetan, berriz, Ikastolako frontoian.



Luis Agirregomezkorta:

"Jubilatzean karatean jarraitu nahi nuke"

-Zergatik aukeratu zenuen karatea? -17 urte nituela hasi nintzen. Lehenago judo egiten ibili nintzen, baina nire asmoa karate praktikatzea zen. Gauza berriak duen erakargarritasunagatik uste dut.

-Konpetizioan al zabilteza orain? -Ez, orain karate irakasten nabil eta ikastaroak ematen. Datoren hilean hirugarren *Dan* atera behar dut.


-Karatea kirol arriskutsua al da? -Ez. Nik uste, irakaslearen arabera dela. Aitzitik, ondo dago mutikoentzat; sikomotrizitate lantzen da, oreka.... Karatea besteak jotzea eta gauzak apurtzea dela uste du jendeak. Baina kontrakoa dela esatera ausartzen naiz. Karatean jardun dudana 17 urteetan zehar, ez dut inor jipoitzekeko arrazoirik izan.

-Zineak, karatearen ikuspegi fiktizioa zabaldu du, beraz.

-Bai, batez ere hasten ari den jendearen artean. Espektakularra da. Arte martzialen bidez, norberaren buruarekin ondo sentitzea lortu behar da. Nire ilusioa, jubilaziora heltzean, egunero karatea egiten jarraitzea litzateke.

-Bizitzeko filosofia al da karatea?

-Hamar urtez baino gehiago arte martzialen bat egiten dabilen edono-



rentzat bizimodu bat da. Karatea eginez, egunero zeure burua gaintzen ahalegintzen zara. Ni Kase maisu japoniarraren ikastaro teknikoetara joaten naiz eta gizon honek 68 urte izan arren, ikustekoa da zer nolako koordinazio eta arintasuna duen. Hau ez da kirola bakarrik eginez lortzen. Energia pilotzen joan da urteetan zehar.

-Defentsarako ala erasorako al da karatea? -Defentsarako beti. Edozein teknika, blokeo batekin hasten da, inoiz ez erasotzen.

-Nola ikusten duzu karatea Elgoibarren? -Oso ondo. Urrian lau urte egingo dugu karate eskolarekin. Bi talde haur ditugu, 45 bat guztira, eta helduen taldean, 22 bat izango dira. Gorantz doa karatea.

• Adina: 34

• **Zaletasunak:** Karatea, numismatika.

• **Amodiozko filmak ala arte martzialezkoak?** Arte martzialezkoak ezer gutxi dute erakusteko. Ridikulo eta absurdoak dira.

• **Kalerako zapatilak ala zapatak?** Normalean zapatilak.

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA


San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

BETI ARGÍ S. L

Erregalu artikulua
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.

ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.

HITZ GEZIZUNAK

	Hegaztiekin dituzte	Eguzkian	Masa	Poltsikoak
	Gas eztanda	Banatu ez daitekeena	Ez jaikia	Jainko egiptiarra
Laztanak				
Hari-bola				
'Izena	Lady ezaguna	Botika mota	Galdera ezaugarria	Bokala
Golko txikia	Agurra	Merkatua	499	Lehena
		A	Naizen hau	Bokala
		Behetik gora joan	Bihotzeko higidurak	Kristoren ama hizkuntza
101	Eztenek egindako zauriak Nekazal tresna	Z		
Modako Jakintza		O	Norbegiako ibilgai-luetan	Errumaniako autoetan Bokala
		K		Usain txarrekoa bihurtu
Pozik dagoena	Ingurukoak baino beheragoko uneak "Deitura"	A	37 gradutik gora	Musika nota 49
		Lapa erdian		
		Osagai bakarreko		
Euskal sindikatua Munduratu gaituena		Boroa	Gizon izena	
		Ipar. ile	Kontsonantea	
	Lehengo Gipuzkoa			
	Fruitu lehor			
Mila	Haizen horrek		Nor pluraleko bukaera	Einsteinioa
Loaldi arina	Jo ta ...		11	
				Arto erdian
				Bat
Neu, nerau			(Errep)San Ferminetako saio itzilutsua	

HOROSKOPOA

ARIES Uda bertan dago eta zu oraindik 5 kilo horiek galdu gabe? Eta dieta hura?

TAURUS Bada lainoetatik jeis-teko garaia. Ekaineko azterketak gainean dituzu.

GEMINI Maitatzen zaitudalako kantatzen dizut zuri...

CANCER Gordeta dituzun diru horiek inbertitzeko garai aproposa da. BARRENEko "zuk eman eta nik hartu" kontsulta ezazu.

LEO Horrela jarraitzen baduzu inor gabe geratuko zara, noizean behin norberak eman behar du.

VIRGO Izarrek diotenez hau da zure astea. Etzazu aukera galdu.

LIBRA Libra baino askoz gehiago ez duzu pisatzen. Gero gaizki geratzen zaizu bainujantzia.

SCORPIO Ez etsi, krisia bukatzeaz omen dago.

SAGITARIUS Astebukaera hau aproposa izan daiteke txikiteoa utzi eta mendira irtetzeko.


CAPRICORN Lentilak jarriko bazenitu hobeto zeundeke.

AQUARIUS Zer egiten du, zu bezalako batek hau bezalako toki batean?

PISCIS Maitasuna emateko da.

JEROGLIFIKOA

Noiz argitaratu da liburua?



ARRATE IRRATIA

24 orduz zuekin
 Arrate ☎ 212 (20.600) Eibar
 ☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

Salvador Celaya
ITURGINTZA
 BILTEGI ETA BAINUGINTZA
 BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK
 Errosario 22. Tel: 74 04 94

8 Larunbata

11,00 HITZALDI IKASTAROA

Gaia: Elgoibarko euskararen egoera
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,30 ZINEA

"Algunos hombres buenos" 1992
USA. Zuzendaria: Rod Reiner
Aktoreak: Tom Cruise, Jack
Nicholson, Demi Moore.

**18,00 FUTBOLIN ETA PINPON
TXAPELKETA**

Tokia: Maalako parkea

Z I N E A

"Algunos hombres buenos"

Itsas armadako bi gazte beraien kide bat asesinatzeaz akusatuko dituzte. Itsas armadak zuzenbide ikasketak bukatu berri dituen abokatu bat (Tom Cruise) aukeratuko du akusatuak defendatzeko. Halere, abokatu gazte honek legeekiko baino beisbolera zaitasun handiagoa du.

Z I N E A

**20,00 GAZTETXEAREN
ALDEKO MANIFA**

21,00 AFARIA

Dohainik. Bertsolari eta trikitrixarekin.
Tokia: Maalako parkea.

22,30 ROCK KONTZERTUA

Taldeak: Nahitanahiez, Pneuma eta Zokoan.
Tokia: Maalako parkea.

9 Igandea

8,30 HERRI URRATS

Autobusa Sigmako Zubian.

16,30 ZINEA

"Cortocircuito"

18,00 ERAKUSKETA

Gaia: "Ez genuen 68ko maiatza ezagutu baina beste batzuk ezagutu ditugu"
Tokia: Maalako parkea

19,30 ZINEA

"Algunos hombres buenos"

10 Astelchena

19,30 ZINEA

"Algunos hombres buenos"

19,00 ZAZPIKIREN HITZALDIA

Gaia: Musika eta komunikabideak
Parte hartzaileak: Fermin Mugu-ruza, Salda, Iñaki Zarata, eta Jon Zabala
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Zazpiki Irratia

**DIA DAS LETRAS
GALEGAS**

JAI EGITARAUA:

MAIATZAK 8, LARUNBATA:

15,00: CHAVES jokaldia. Izen ematea lokalean egingo da. Sari garrantzitsuak

MAIATZAK 9, IGANDEA:

17,00: Ezkongai eta ezkonduen arteko futbito partidua.

MAIATZAK 14, OSTIRALA

19,00: Jaiei hasiera. Txafliu botatzea..

22,00: Pontevedra Orkestarekin berberena Herri Eskolan.

APIRILEAN

JAIOTAKOAK	HILDAKOAK	EZKONDUAK
<i>Alejandro Pascual Rubio</i> Apirilak 5	<i>Josefa Churruca Cortaberria</i> apirilak 2 (70 urte)	<i>Jesus Mari Caro Estevez eta Nekane Egaña Peñagarikano</i> (Apirilak 3)
<i>Ainhoa Agirre Liz</i> Apirilak 7	<i>Nemesio Urigoitia Ajuriagerra</i> apirilak 6 (81 urte)	<i>Jose Migel Rubio Vecina eta Jone Miren Rodriguez Leiaristi</i> (Apirilak 3)
<i>Izaskun de Marcos Arocena</i> Apirilak 10	<i>Maria Dolores Salgado Cid</i> apirilak 15 (83 urte)	
<i>Joseba de Pablo Salegi</i> Apirilak 21	<i>Jose Eizagirre Arruti</i> apirilak 15 (97 urte)	
	<i>Manuela Antonia Agirre Aizpurua</i> apirilak 18 (85 urte)	
	<i>Francisco Garate Garate</i> apirilak 19 (65 urte)	
	<i>Atsegin Soraluze Lizundia</i> apirilak 23 (27 urte)	
	<i>Maria Tere sa Gabilondo Juaristi</i> apirilak 29 (44 urte)	

Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 ra.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta.
Alberto: 74 14 94

Salerosketak

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

Bi bizikleta motoreta saltzen ditut. BMX modelokoak.
Tel: 74 05 35

18 belozidatedun mendiko bizikleta bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.
Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35

Tituludun irakasleak O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditu.
Alazne Tel.:74 28 53

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.
Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

"Asolo Super-soft" (42zkb.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

Kontaktuak

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Txakurrak eramateko erremolke bat erosiko nuke.
74 28 64 (Bulego orduetan)

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

PISUA KONTROLATZEA ez da erreza, **MANTENTZEA** are gutxiago.

ERANTZUNA "Herbalife" NUTRIZIO PROGRAMA da .

Deitu 74 22 23

Belen Albizu. Santa Ana 10-4C



ASESORIA
GO&R

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOAKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOAKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

PAGOAGA S.A. Iturgintza



GAS INSTALATZAILEA, IG4 baimenarekin

**Gas Naturala
eta
Propanoa**

KANPORAKO ETA ETXE BARRURAKO.

- ↳ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ↳ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN

☎ 74 02 79-74 05 12 ELGOIBAR

NaturGas

Naturgas, gure energiaren zatia da. Gure etxeetan bete betean sartzen ari den energia.

Naturgasek euskal etxe eta komertzioak gasez hornitzen ditu. Energia garbia, segurua, ugaria eta merkea. Europan frogatu den bezala bizi kalitatea eta erosotasuna eskaintzen du.

32 herritako gas banatzailea, 33.000 bezerotik gora dituelarik.

Naturgas Euskal Energia Erakundearen baitan dago. Guztion energia da.